# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**5143**

**58/2011 FORU AGINDUA, irailaren 6koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Urizaharreko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea; hain zuzen ere, abeltzaintza jardueren definizio berriari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2011ko apirilaren 8ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Urizaharreko Udalak hasierako onarpena eman zion planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedienteari (abeltzaintza jardueren definizio berriari buruzko aldaketa), eta espediente hori jendaurrean jartzea erabaki zuen ere bai.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzeko iragarki bana argitaratu ziren 2011ko maiatzaren 9ko ALHAOn (56 zk.), 2011ko maiatzaren 6ko El Correon eta 2011ko maiatzaren 5eko Diario de Noticias de Álava egunkarian eta udaletxeko iragarki taulan, eta udalerriko administrazio batzarrei jakinarazpena egin zitzaien.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Horren ondorioz, udalak, 2011ko uztailaren 7an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari eta erabaki zuen hori Arabako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena jasotzeko. Espedientea 2011ko abuztuaren 1ean heldu zen Aldundira.

Laugarrena.- 2011ko abuztuaren 23ko idazkiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuari txostena egiteko eskatu zitzaion, eta horrek 2011ko abuztuaren 29an igorri zuen.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Aldaketaren xedea da Urizaharreko arau subsidiarioen arautegiko 78.2.b) artikuluari idazketa berria ematea. Artikulu horren bidez, abeltzaintza jardueren definizioa eta motak arautzen dira. Aldaketa horren bidez autokontsumorako jardueren orain arteko banaketa (lurzoruaren erabilerari lotuak eta lotu gabeak) aldatzea proposatzen da, aurrerantzean autokontsumorako jarduerak honela banatzeko: abeltzaintza intentsiboa, abeltzaintza erdi intentsiboa eta abeltzaintza estentsiboa.

Hortaz, xedea kontuan harturik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56. artikuluaren arabera, antolamendu xehatuaren aldaketa baten aurrean gaude.

Bigarrena.- Aldaketa egin behar bada, abeltzaintzako jarduera motak sektorearen egungo errealitatera egokitzeko da. Lurzoruarekiko loturaren kontzeptua ezabatu eta, horren ordez, abelburu bakoitzak lurzoruaz egiten duen erabilera erreala islatu behar da, horrela, aurreko arautegiak sortzen zituen kontraesanak desagertuko baitira.

Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuak 2011ko abuztuaren 29ko txostenean adierazi zuenez, Urizaharreko Udalak proposatutako definizioak (abeltzaintza intentsiboa, erdi intentsiboa eta estentsiboa) bat datoz abeltzaintza ustiategien kalifikazioarekin. Gainera, definizio horietan lurzoruaren erabilera ere islatzen da, kontuan izanda zer nutrizio ekarpen jasotzen duten animaliek bertatik. Hori guztia dela eta, Abeltzaintza Zerbitzua ados dago aurkeztutako aldaketarekin.

Beraz, sektoreko organo eskudunak espedientearen aldeko txostena idatzi duenez eta oztopo juridiko administratiborik ez dagoenez, egoki da proposatutako aldaketa behin betiko onartzea.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**5143**

**ORDEN FORAL 58/2011, de 6 de septiembre, aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Peñacerrada, referida a la nueva definición de actividades ganaderas.**

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante acuerdo adoptado en sesión del día 8 de abril de 2011, el Ayuntamiento de Peñacerrada acordó aprobar inicialmente el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente a la nueva definición de las actividades ganaderas, así como someter el expediente a información pública.

Segundo.- Dicha información pública fue practicada mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 56, de 9 de mayo de 2011, en los periódicos El Correo de 6 de mayo de 2011 y el Diario de Noticias de Álava de 5 de mayo de 2011, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificación a las Juntas Administrativas del municipio.

Tercero.- Durante el período de información pública no fue presentada alegación alguna, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 7 de julio de 2011, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 1 de agosto de 2011.

Cuarto.- Mediante escrito, de 23 de agosto de 2011, se solicitó del Servicio de Ganadería de la Diputación Foral de Álava la emisión de informe, el cual fue remitido el día 29 de agosto de 2011.

FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación tiene por objeto una nueva redacción del artículo 78.2.b) de la normativa de las Normas Subsidiarias de Peñacerrada que regula la definición y clases de las actividades ganaderas. Mediante la modificación propuesta se sustituye la clásica distinción de actividades de autoconsumo, ligadas al uso del suelo y no ligadas al uso del suelo, por las de autoconsumo, ganadería intensiva, ganadería semi-intensiva y ganadería extensiva.

Teniendo en cuenta el objeto nos encontramos ante una modificación de ordenación pormenorizada de acuerdo con el artículo 56 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Segundo.- La justificación de la modificación viene dada por la necesidad de adecuar los tipos de actividades ganaderas a la realidad actual del sector, eliminando el concepto de ligadura al suelo para sustituirlo por el uso real del suelo por cada cabeza de ganado, permitiendo con ello eliminar las contradicciones que provocaba la anterior regulación.

El Servicio de Ganadería de la Diputación Foral de Álava, en su informe de 29 de agosto de 2011, señala que las definiciones propuestas por el Ayuntamiento de Peñacerrada (ganadería intensiva, semiintensiva y extensiva) son acordes a la calificación de las explotaciones pecuarias y, a su vez, expresan la vinculación con el uso del suelo, desde el punto de vista del aporte nutricional de los animales, por lo que muestra su conformidad con la modificación planteada.

Es por ello que habiendo sido informado favorablemente el expediente por el órgano sectorial competente y no existiendo ningún obstáculo jurídico-urbanístico, procedería la aprobación definitiva de la modificación propuesta.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Urizaharreko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedientea; hain zuzen ere, abeltzaintza jardueren definizio berriari buruzkoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAON argitaratzea.

Hirugarrena.- Aurreko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari. Haren aurka partikularrek ondoko errekurtsoetako edozein aurkeztu ahal izango dute, beren interesak aldezteko bidezkotzat jotzen duten beste edozein neurri hartzea eragotzi gabe:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete, edo beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen organo berberari. Horretarako, hilabeteko epea izango da hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko irailaren 6a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

**URIZAHARREKO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN 78. ARTIKULUAREN IDAZKETA BERRIA**

**78. artikulua.- Definizioa eta motak.**

1.- Energia baliabideak ez diren lehen sektoreko baliabideak produzitzeko erabileratzat hartzen da (energia edo meatze baliabideak izan ezik) lehengaiak ekoizteko jarduera oro. Baliabide horiek, behar bezala sailkatu eta garraiatzeko moduan jarri ondoren, biztanleria, eraldaketa zentroak edo manufaktura zentroak hornitzeko erabiltzen dira.

Ez dira talde horretan sartzen ez eraldaketa eragiketak (industria erabilera), ezta biltegikoak ere.

2.- Espazioan xehatzearen ondorioetarako, honako mota hauek bereizten dira:

a.- 1.1. Nekazaritzakoak: produktuak lortzearren, lurra landu eta ustiatzeko jarduerak.

b.- 1.2.- Abeltzaintzakoak: haragia edo beste produktu batzuk lortzearren, animaliak erabiliz egiten diren hazkuntzarako jarduerak. Honako hauek sartzen dira: ehiza eta arrantza animaliak (ehiza granjak eta arrain haztegiak), txakur zaindegiak eta zaldi jarduerak (zaldiak hazi eta zaintzekoak, eta ekitazio eskolak).

1.2.1. Autokontsumorako oinarrizko jarduerak:

Autokontsumotzat jotzen da animaliak edukitzea, haragia edo bestelako produktuak soil-soilik familiak kontsumituko baditu eta animalia kopurua, gehienez, honakoa bada:

Txerri azienda: 4 buru
Behi edo zaldi azienda: 2 buru
Ardi edo ahuntz azienda: 5 buru
10 untxi ama
20 hegazti

1.2.2. Abeltzaintza intentsiboa:

Abeltzaintza intentsiboaren barruan sartzen da funtsean eraikuntzetan ukuiluratzean datzan abeltzaintza ekoizpena.

1.2.3. Abeltzaintza erdi intentsiboa:

Abeltzaintza erdi intentsiboaren barruan sartzen dira eraikuntzetan ukuiluratzea eta larratzea txandakatzen dituen abeltzaintza ekoizpeneko berezko jarduerak.

1.2.4. Abeltzaintza estentsiboa:

Batez ere, larratzean oinarritutako abeltzaintza ekoizpeneko berezko jarduerak sartzen dira. Kasu honetan, ukuiluratzea jarduera osagarri bat baino ez da.

1.2.5. Arrain hazkuntzako erabilerak.

Baimen eskabidearekin batera, zonak une horretan duen egoeraren azterlana ere aurkeztu behar da. Azterlan horretako planoetan ubide naturalak, aurreikusitako kanalak, desbideratutako ur emaria, urbazterretan egin beharreko jardunak eta abar azaldu behar dira.

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Peñacerrada, referente a la nueva definición de las actividades ganaderas.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de septiembre de 2011.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

**NUEVA REDACCIÓN DEL ARTÍCULO 78 DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DEL MUNICIPIO DE PEÑACERRADA**

**Artículo 78.- Definición y clases.**

1.- Se denomina uso de producción de recursos primarios no energéticos, a las actividades de producción de materias primas –excluidos los recursos energéticos o mineros-, que debidamente clasificadas se dispondrán en condiciones de transporte, para destinarlas al establecimiento de la población de los centros transformadores o manufactureros.

No se incluyen en este grupo ni las operaciones de transformación (uso industrial) ni las de almacenamiento.

2.- A los efectos de su pormenorización en el espacio se distinguen las siguientes clases:

a.- 1.1. Agrícolas: actividades encaminadas al cultivo y explotación de la tierra para la obtención de productos.

b.- 1.2. Ganaderas: actividades que se realizan con los animales encaminadas a criar y recriar bien sea por el valor de su carne u otros productos. Incluya los animales de caza y pesca (granjas cinegéticas y piscifactorías), las guarderías caninas y las actividades hípicas (cría, guarda y clases de equitación).

1.2.1. Actividades básicas de autoconsumo:

Se entiende por autoconsumo la tenencia de animales que tiene por objeto la utilización de la carne y productos obtenidos para uso puramente familiar, siempre y cuando no se superen el siguiente número máximo de animales:

4 cabezas de ganado porcino.
2 cabezas de ganado vacuno o equino.
5 cabezas de ganado ovino-caprino.
10 conejas madres
20 aves.

1.2.2. Ganadería Intensiva:

Comprende la producción ganadera que se basa fundamentalmente en la estabulación en edificaciones del ganado.

1.2.3. Ganadería Semi-intensiva:

Comprende las actividades propias de la producción ganadera que alterna la estabulación en edificaciones y el pastoreo.

1.2.4. Ganadería Extensiva:

Comprende las actividades propias de la producción ganadera realizadas basándose fundamentalmente en el pastoreo, siendo la estabulación una actividad complementaria a aquellas.

1.2.5. Usos piscícolas

A la petición de autorización se acompañará un estudio de la situación actual de la zona conteniendo planos donde se señales los cauces naturales, las canalizaciones previstas, caudal desviado, actuaciones sobre las riberas etc.

1.2.6. Bordak eta barrutiak.

Artzaintzari lotutako eraikin tradizionalak dira. Eraikitzeko, tradizioz erabilitako materialak erabiltzeaz gain, ohiko ezaugarriei jarraitu behar zaie, bai itxuran bai eraikitzeko moduan.

1.2.7. Abereentzako uraskak.

Abereek beste inork erabiliko ez duen ura hornitzeko eraikuntzak dira.

Nahitaez eraikuntza estali gabeak izan behar dira. Haien instalazioak eta kokaguneak bermatu behar dute kontsumitzeko ura ez dela kutsatuko eta eraikuntzaren azpiko uraren kalitate ekologikoa mantenduko dela.

Abeltzaintza jarduerekin eta eraikuntza erabilerekin zerikusia duten arauen gainerako artikuluak aplikatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Lurzoruaren erabilerari lotutako abeltzaintza jarduerak dira: abeltzaintza estentsiboak eta erdi intentsiboak.

b) Lurzoruaren erabilerari lotu gabeko abeltzaintza jarduerak dira: abeltzaintza intentsiboak.

c.- 1.3. Basogintzakoak: mendiak, basoak nahiz basoetako larreak kontserbatzea, babestea, ustiatzea, etab. helburu duten jarduerak.

## Iragarkiak

### TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

5131

**Lehen irteerarako landa autoponpa astuneko ibilgailua (I. lotea) eta autoponpa astuneko kamioi hornitzailea (II. lotea) erosteko kontratazioa prozedura ireki bidez kontratu formalizatzea.**

I.- ERAKUNDE ESLEITZAILEA

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Toki Administrazioaren Zerbitzua.

c) Espediente zenbakia: 11/91 AL.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

a) Kontratu mota: Horniketa.

b) Xedearen azalpena: Lehen irteerarako landa autoponpa astuneko ibilgailua (I. lotea) eta autoponpa astuneko kamioi hornitzailea (II. lotea) erosteko kontratazioa prozedura ireki bidez esleitzea.

Loteak: Bai.

c) Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna (EBAO): 2011ko maiatzaren 4a.

Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO): 2011ko maiatzaren 24a.

ALHAO: 2011ko maiatzaren 16a.

3. IZAPIDETZEA ETA PROZEDURA

a) Izapidetzea: presakoa.

b) Prozedura: irekia.

4.- LEHIAKETARAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

1. lotea: lehen irteerarako landa autoponpa astuneko ibilgailua. Lizitazio oinarria: 227.966,10 euro (BEZa aparte).

2. lotea: autoponpa astuneko kamioi hornitzailea. Lizitazio oinarria: 262.711,86 euro (BEZa aparte).

Kontratuaren aurrekontua, guztira: 579.000,00 euro (BEZa barne).

5.- ESLEIPENA ETA FORMALIZATZEA

a) Esleipen-data: 2011ko abuztuaren 2a.

b) Esleipenduna:

Rosenbauer Española SA

Marqués de Monteagudo, 24 - 28028 Madril.

c) Esleipenaren zenbatekoa:

I. lotea: lehen irteerarako landa autoponpa astuneko ibilgailu bat. 216.880,00 euro, BEZa aparte.

II lotea: autoponpa astuneko kamioi hornitzailea, 229.800,00 euro, BEZa aparte.

1.2.6. Bordas y cercados.

Son construcciones tradicionales vinculadas al pastoreo. Su construcción se adaptará a las características tipológicas, constructivas y de materiales de los tradicionales.

1.2.7. Abrevaderos de ganado.

Son instalaciones destinadas al abastecimiento de agua para uso exclusivo del ganado.

Habrán de ser instalaciones obligatoriamente descubiertas. Su instalación y localización garantizará la no contaminación de aguas destinadas al consumo y el mantenimiento de la calidad ecológica aguas debajo de las mencionadas instalaciones.

Para la aplicación del resto de los artículos de las normas que hagan referencia a las actividades ganaderas y sus usos constructivos, se entenderán como:

a) Actividades ganaderas ligadas al uso del suelo: Las ganaderías extensivas y las semi-intensivas.

b) Actividades ganaderas no ligadas al uso del suelo: Las ganaderías intensivas.

c.- 1.3. Forestales: actividades encaminadas a la conservación, protección y explotación, etc., de los montes, bosques y pastos forestales.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

5131

**Formalización del contrato del procedimiento abierto para la contratación de la adquisición de un vehículo autobomba rural pesada para primera salida (lote I) y un camión nodriza autobomba pesada (lote II).**

1.- ENTIDAD ADJUDICADORA

a) Organismo: Diputación Foral de Álava.

b) Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Administración Local.

c) Núm. de Expediente: 11/91 AL.

2.- OBJETO DEL CONTRATO

a) Tipo de contrato: Suministro.

b) Descripción del Objeto: Adjudicación del procedimiento abierto para la contratación de la adquisición de un vehículo autobomba rural pesada para primera salida (lote I) y un camión nodriza autobomba pesada (lote II).

Lotes: Si.

c) Fecha de envío del anuncio de licitación al Diario Oficial de la Unión Europea (DOUE): 4 de mayo de 2011.

Boletín Oficial del Estado (BOE): 24 de mayo de 2011.

BOTHA: 16 de mayo de 2011.

3.- TRAMITACIÓN Y PROCEDIMIENTO

a) Tramitación: Urgente.

b) Procedimiento: Abierto.

4.- PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

Lote 1. Vehículo autobomba rural pesada para primera salida, tipo de licitación de 227.966,10 euros, IVA excluido.

Lote 2. Camión nodriza autobomba pesada, tipo de licitación de 262.711,86 euros, IVA excluido.

Presupuesto total del contrato: 579.000,00 euros IVA incluido.

5.- ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN

a) Fecha de adjudicación: 2 de agosto de 2011.

b) Adjudicatario:

Rosenbauer Española, S. A.

Marqués de Monteagudo, 24 - 28028 Madrid.

c) Importe de adjudicación:

Lote I: Vehículo autobomba rural pesada para primera salida: 216.880,00 euros, IVA excluido.

Lote II: Camión nodriza autobomba pesada 229.800,00 euros, IVA excluido.